

Catherine
Cawthorne

Sara
Ogilvie

OTSO MALTZURRAREN

IKERKETAK:

Ipuiñ
Klasikoak



 Picarona

Susieri, Zoeri eta Christopherri.

Gerwin eta Petra – S.O

Kontsultatu hemen gure katalogoa: www.picarona.net

Otso maltzuraren ikerketak: ipuin klasikoak

Testua: Catherine Cawthorne

Irudiak: Sara Ogilvie

1. argitalpena: 2025eko maiatzean

Jatorrizko izenburua: Big Bad Wolf Investigates Fairy Tales

Itzulpena: *Iniigo Satrustegi*

Zuzenketa: *Fernando Rey*

Maketazioa: *El Taller del Llibre, S. L.*

© 2020, testuarenak : Catherine Cawthorne

© 2020, irudienak: Sara Ogilvie

Edizio hau Bloomsbury Publishing Plc.-ekin egindako

hitzarmenari esker argitaratu dugu.

(Eskubide guztiak erreserbaturik euskararako)

© 2025, Ediciones Obelisco, S. L.

www.edicionesobelisco.com

(Eskubide guztiak erreserbaturik euskararako)

Argitalpena: Picarona, Ediciones Obelisco SLren haurrentzako zigilua

Collita, 23-25. Molí de la Bastidako industrialdea

08191 Rubí - Bartzelona - Espainia

Tel.: 93 309 85 25

E-posta: picarona@picarona.net

ISBN: 978-84-9145-809-8

LG B 23.343-2024

Printed in China

Eskubide guztiak erreserbatuta. Argitaratzailearen alde aurreko baimen idatzirik izan ezean, inork ezin du argitalpen honen inongo parterik –azalaren diseinua barne– erreproduzitu, biltegitatu, transmititu edo erabili inolako baliabideren bitartez, haiek elektronikoak, kimikoak, mekanikoak, optikoak, grabaziokoak edo elektrografikoak izan.

Lan honen zatiren bat fotokopiatu edo eskaneatu behar baduzu, CEDROra jo
(Eskubide Erreprografikoen Espainiako Zentroa, www.cedro.org)



Ene lagun jakintsuok.

Uste duzue Mari Errauskineren ipuina ongi ezagutzen duzuela. Baita babarrun ale magikoen istorioa ere bai. Uste duzue ongi dakizkizuela txerrien, sorginen eta ilarraren ipuin klasiko zikin horiek.

Baina ez da hala, inola ere ez.



Pentsa, dantza egingo zenukete KRISTALEZKO zapatak jantzita? Zer gertatzen zaie gailetakoz etxeei EURIA egiten duenean? HOBEKI entzuten al da belarri handiekin?

Eta ni? Nahi izan banu ere, ezingo nukeen amona oso-
osorik irentsi. Gehienez ere hanka bat jan nezake,
beso bat ere bai, gose handirik banu... Eta txerri
horiek? Esango didazue zertarako botako ditudan
haien etxeak putz eginez. Gauza hobeak ditut egiteko!

Halakoek EZ DUTE ZENTZURIK eta FROGATU
EGINGO DUT!

Adeitasunez (eta zehaztasun zientifiko, logiko eta
matematikoz), Zuek-Uste-Bezain-Maltzurra-Ez-Zen
Otsoa.

Muxu bat



TXERRIA
1

TXERRIA
3



Has gaitezen inolako
zentzu zientifikorik
ez duen istorio
honekin. Denak
txerritxoan alde
zaudete, baina inork
ez dit NIRI sekula
EZER galdetu!



Hiru Txerrikumeak

Txerri ama kokoteraino zegoen bere hiru txerrikumeekin. Horregatik, nork bere etxeak eraikitzen bidali zituen (GURASOOK: HORI EZIN DA EGIN! Tira, zuen umeak bihurriak badira, orduan bai, egin dezakezue).



Lehen txerrikumeak lastozko etxea eraiki zuen.



Bigarren txerrikumeak egurrezko etxea eraiki zuen.



Hirugarren txerrikumeak adreiluzko etxea eraiki zuen.

Hiru txerrikumeak pozarren zeuden nor bere etxe berriarekin, harik eta Otso maltzurra lehen etxean agertu zen arte: lastozkoan.

Txerrikume txiki, utzi sartzen!

Zure etxeari putz eta putz egingo diot orduan, hegan ateratzen den arte!

Inola ere ez, nire kokotseko iletxoengatik!



Eta, halaxe, etxea erori egin zen.



Bigarren txerrikumearen etxera abiatu zen orduan
Otso Maltzurra, eta elkarriketa **BERDINA**
izan zuen harekin ere.



Egurrezko etxea ere jausi egin zen.

Azkenik, adreiluzko etxearen parera heldu
zen Otsoa, eta, berriz ere, elkarriketa
berdina izan zuten.



Orduan, baina, putz eta putz egin bazuen ere,
etxeak zutik iraun zuen.

Haserre bizian,
Otsoa teilatura igo zen,
etxera sartzeko asmoa
baitzuen tximiniatik behera eginez.
Ez zen oso trebea, hala ere...



Bitartean, txerrikumeeek lapiko handi bat
jarri zuten sutan, ura irakiten jartzeko.

Otso maltzurra bertara erori
(PLAUSTA!),
eta ipurdia erre zuen
(AUUU!).



Ziztu bizian alde egin zuen eta ez zen **INOIZ**
ERE itzuli. Txerrikumeeek pozarren ospatu
zuten. Amaiera.



GORA
txerrikumeeak.

Otso KAKATIAK.

AIZUE, hemen nago
oraindik, e? Ikus
dezagun zer gertatu
zen egiatan...

